

PLEGU TEKNIKOAK

INGURA

EUSKARA ONLINE IKASTEKO PLATAFORMARAKO A1 MAILAKO AZALPEN-BIDEOEN ETA BIDEO-PASARTEEN EKOIZPENA

ZERBITZU KONTRATUA

ESPEDIENTE ZENBAKIA: G23 / 604

AURKIBIDEA

SARRERA

1.- KONTRATAZIOAREN HELBURUA

2.- AZALPEN-BIDEOEN ZEHAZTASUNAK:

2.1. AZALPEN-BIDEOEN EZAUGARRIAK

2.2. GIDOIAK

2.3. BIDEOEN EDUKI OSAGARRIAK

2.4. AZALPEN-BIDEOEN GRABAZIORAKO TEKNIKAK

2.5. AKTOREAK

2.6. AZALPEN-BIDEOEN KOPURUA ETA IRAUPENA

2.7. SARE SOZIALETARAKO BIDEO-PASARTEAK

2.8. ARTXIBO-MOTAK

2.9. KARATULA, SINTONIA ETA KREDITUAK

2.10. AZPITITULUAK

2.11. BIDEOAK SORTU ETA EKOIZTEKO BALDINTZAK

3.- AURREKONTUAREN DIRU-HORNIDURA

4.- EPEA ETA ZEREGINAK

5.- PROPOSAMEN TEKNIKOAK

6.- PROPOSAMEN TEKNIKOAK BALIOZTATZEKO IRIZPIDEAK

7.- ADIBIDE LAGUNGARRIAK

SARRERA

HABEk helduen euskalduntzerako INGURA ingurune digitala sortuko du. Ingurune honen bidez, online metodo bat eskainiko du HABEk, hainbat gailu elektronikotatik euskara-ikasleak nonahi eta noiznahi ikas dezan.

INGURA egitasmoaren lan-lerroetako bat euskalduntzearen maila guztietarako ikastaroak sortzea izango da. Oinarrizko mailetakoa ikastaroak Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) ildo metodologikoei jarraikiz diseinatzeaz gain, badute berezitasunik: ikastaro hauek bideo-ikaskuntzan oinarrituko dira eta formatu honetan aurkeztutako edukia izango da jarduera didaktiko askoren ardatz.

A1 mailako ikastaroari dagokionez, azalpen-gramatikalen bideoak izango dira ikastaroaren hezurduran eskainiko den bideo mota bat. Bideo hauek LMS plataforma batean eskegi eta azalpen-gramatikalen ikasgai gisa erabiliko dira. Horrez gaiz, azalpen-bideo hauen pasarte batzuk sare sozialetan ere argitaratuko dira.

1.- KONTRATAZIOAREN HELBURUA

HABEren INGURA plataformarako A1 mailako eduki didaktikoen gaineko **hirurogei (60) azalpen-bideo eta sare sozialetan argitaratzeko 60 bideo-estraktu ekoiztea** da kontratazioaren helburua.

Egiteko zehatzak hauek izango dira:

- Bideoen ekoizpenean parte hartuko duen lantaldearen zuzendaritza-, plangintza- eta koordinazio-lana egitea.
- Bideoen ekoizpenerako aurreproduktzio, produktzio, postproduktzio eta egokitzen teknikoak egitea eta bideratzea.
- Bideo bakoitzaren gidoi teknikoa egitea, HABEren gidoi didaktikoak oinarri hartuta
- Bideo bakoitza osatzeko egokitzen jotzen diren eduki osagarriak eta euskarriak sortzea.
- Azalpen-bideo bakoitzeko pasarte bat editatzea edo eduki hori berrerrabiliz beste bideo bat egitea sare sozialetan argitaratzeko.
- Aktoreen aukeraketa eta zuzendaritza egitea.
- Bideoak azpituatzea.

2.- AZALPEN-BIDEOEN ZEHAZTASUNAK

2.1. AZALPEN-BIDEOEN EZAUGARRIAK

- Azalpen-bideo hauen helburua euskara-ikasleari eduki linguistiko bat ahalik eta modurik didaktikoenean azaltzea izango da.
- Bideo bakoitzean protagonista nagusia irakasle-rola jokatu duen aktore-aurkezle bat izango da.
- Aurkezpenaren oinarrian izaera didaktiko-linguistikoa izango duen GIDOI bat egongo da, hau da: eduki linguistiko baten azalpena.
- Ahozko aurkezpenean egin bitartean, irakasle-aktorearekin elkarreraginean, testuak, irudiak, beste bideo batzuk, grafikoak eta animazioak azalduko dira. Kristalezko arbela ere erabiliko du aktore-aurkezleak hainbat eduki idatziz aurkezteko.
- Bideoak didaktikoak, bisualak, berritzaileak eta erakargarriak izango dira, erritmo arinean sortuak.
- Azalpen-bideo hauek HABEren INGURA moodlen plataforman argitaratuko dira.

2.2. GIDOIAK

- Gidoien edukia A1 mailako eduki gramatikal ezberdinen gaineko azalpen eta adibide idatziak dira. Gidoi hauek hizkuntza irakasle batek sortutakoak izango dira.
- 60 gidoi hauek HABEk esleipendunaren esku jarriko ditu, honek aztertu, aurkezpen-formatura egokitu eta gidoi teknikoak eginda ekoiztu ditzan.
- Gidoi teknikoetan jasoko dira bideo bakoitza osatzeko egokitzat jotzen den eduki osagarria, baita honek izango duen formatua eta iraupena ere.

GIDOIA: EGITURA OROKORRA
1. Sarrera: hasierako agurra, motza eta arina.
2. Bideoaren helburuaren berri eman: zer ikasiko du ikasleak? Zertan jarriko dugu arreta?
3. Eduki gramatikalaren aurkezpena: ereduak, hizkuntza-formak aurkezteko egoera, elkarriketa-zatiak izango dira. Irakasleak aurkeztuta, bideo-pasarte bat, animazio-pasarte bat, irudiak...
4. Azalpen nagusia: hizkuntzaren analisi didaktikoa, arina eta samurra. Metahizkuntza erabiliko da.
5. Adibide gehiago: aurkeztutako eduki horiek beste testuinguru batean.
6. Amaiera: bukaerako agurra, motza eta arina.

2.3. BIDEOEN EDUKI OSAGARRIAK

Hauek dira aurkezpena egiteko aurreikusten diren osagarri eta euskarriak:

- Bideo-zatiak: INGURA egoera-bideoetako pasarteak
- Testu osagarriak edo lagungarriak: adibideak, izenburua...
- Irudiak, argazkiak, ilustrazioak...
- Animazioak
- Grafikoak
- Eskemak, zerrendak, laburpenak...

Euskarri hauek aurkezle-aktorearen azalpenak testuinguratzeko, ilustratzeko eta edukia didaktikoagoa egiteko erabiliko dira. Euskarri hauek izaera hau izan dezakete:

- Aurreprodukzio nahiz postprodukzio-fasean sortuak eta egokituak
- Grabazioaren unean bertan sortuak: adibidez, kristalezko arbela erabilia.
- Estatikoak edo dinamikoak

Eduki osagarri guztiak gidoi teknikoetan zehaztuko ditu esleipendunak, baita hauek izango duten formatua eta iraupena ere.

2.4. AZALPEN-BIDEOEN GRABAZIORAKO TEKNIKAK

Azalpen-bideo hauek ekoizteko honako teknika hauek erabiliko dira.

Lightboard edo kristalezko arbela: Teknologia honekin irakasleak, kamerari begiratzen dion bitartean, eskuz idatzitako oharrekin elkarrekintzan jardun dezake. Kristalezko arbelak aukera ematen du baliabide grafikoak margotzeko eta baita ideia garrantzitsuenak idazteko ere, ikusleari edukia ulertzen lagundu eta hitzezko diskurtsoa indartuko diona.

Chroma Key ikus-entzunezko teknika: Irakaslearen atzeko aldea (hondoa eta inguru birtuala) sortzen diren premietara egokitu ahal izango da, esaterako, argazki bat edo bideo bat txertatuz.

Ikus-entzunezko grafismoa: Azalpenak hornitzeko egokiak diren elementu grafikoak txertatuko dira (besteak beste, errotuluak, animazioak, koloreak, grafikoak, eskemak eta mapak.)

Teknika bakoitzeko ekoiztu beharreko bideo-kopuruari dagokionez, agiri tekniko honetan aurreikuspen hau jaso da. Edonola ere, edukien arabera kopuru-aldaketak ados daitezke.

- 40 bideotan gutxienez Chroma Key eta ikus-entzunezko grafismoa erabiliko da.
- 20 bideotan gutxienez kristalezko arbela erabiliko da.

2.5. AKTOREAK

- Aktoreek irakasle rola jokatu dute. Hau da, beren aurkezpenek intentzio didaktikoa izango dute.
- Helburu hori betetzeko, gidoietan jasotakoa antzeztuko dute, ahalik eta modurik sinesgarri eta hurbilenean.

60 bideo aurkezteko, guztira **lau aktore** izango dira. Bideoetan aktoreak banaka azalduko dira.

- Aktore bakoitzak 15 azalpen-gidoi interpretatuko ditu.
- Aktoreen lokuzioa: Bideoetako aktoreak euskararen ahoskera zainduari jarraikiz (https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf) ahoskatuko ditu gidoiak. Euskararen ezaugarri fonetiko eta fonologikoak aintzat hartuko ditu, bideo hauetako hizkera euskararen ahozkitasunaren eredu ere izango baita. Aktoreak, beraz, estuki zainduko ditu ahoskera, intonazioa, doinua, azentua eta gainerako

ezaugarri fonetiko-fonologikoak. Intentzio komunikatiboaren arabera, hizketa-erritmoa naturala izango da eta ahoskera garbikoa, hizkuntza-erabiltzaile arruntaren parekoa.

- Aktoreen artean genero-ikuspegi orekatua izatea edo emakumeen aldeko diskriminazio positiboa egitea hobetsiko da.
- Aktoreen aukeraketari dagokionez, hainbat aktore proposatuko ditu esleipendunak. Proposamenak ez baditu HABEren irizpideak asebetetzen, HABEk beste aktore bat edo batzuk eskatzeko aukera izango du.

2.6. AZALPEN-BIDEOEN KOPURUA eta IRAUPENA

Guztira INGURA plataformarako hirurogei (60) azalpen-bideo ekoitziko dira. Bideo bakoitzak gutxienez 1m30s eta gehienez 3 minutuko iraupena izango du.

2.7. SARE SOZIALETARAKO BIDEO-PASARTEAK

- Sare sozialetan argitaratuko diren bideo-pasarteak azalpen-bideoekin lotura estua izango dute. Baina, pasarte independenteak izango dira eta gehienez 1m30s iraupena izango dute.
- Bideo-pasarte bakoitzak azalpen-bideo batekin lotura izango du. Koherentzia didaktikoa izango dute. Horretarako, bi ekoizpen aukera daude:

- Bideotik bertatik aukeratutako pasarte editatu bat izan daiteke.
- edo azalpen-bideoan aurkeztutako edukietatik abiatuta, bideo-pasarte bat ekoiztuko da berariaz.

Bide bat ala bestea aukeratzea (batzuetan bat eta beste batzuetan bestea izan daitekeela kontuan hartuz) edukiaren eta argitalpen-irizpideen arabera izango da.

Sare sozialetarako bideo-pasarte hauen gidoiak azalpen-bideoen egitura orokorretik abiatuko dira. *Eduki gramatikalaren aurkezpenak eta azalpen nagusiak* ataletan oinarrituko dira pasarte hauek. Ikus: 2.2. GIDOIAK.

SARE SOZIALETARAKO BIDEO-PASARTEAREN GIDOIA (Egitura orokorretik eratorria)
3. Eduki gramatikalaren, hiztegiaren aurkezpena: ereduak, hizkuntza-formak aurkezteko egoerak, elkarrizketa-zatiak... Irakasleak aurkeztuta, grafismoa, euskarriak... erabiliz.
4. Azalpen nagusia: hizkuntzaren analisi didaktikoa, arina eta samurra. Metahizkuntza erabiliko da.
Ondorioa: mezu nagusia laburbilduta.

2.8. ARTXIBO-MOTAK

- Bideoak .mp4 eta VOB artxibo-motakoak izango dira. Azpitoluak SRT formatuan entregatuko dira.

2.9. KARATULA, SINTONIA ETA KREDITUAK

- Azalpen-bideoek eta sare sozialetan argitaratuko bideo-pasarteek hasierako karatula bat eta bukaerako kredituak izango dituzte.
- Azalpen-bideoek eta sare sozialetan argitaratuko bideo-pasarteek sintonia bat izango dute.

2.10. AZPITITULUAK

- Bideoak azpigitituluz hornituko dira. Maila honetarako osagarri didaktiko aberatsa izaki, bideo guztiek gidoia azpigitituluetan eskainiko dute.
- Azpigitituluaren hizkuntzak: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa izango dira.
- Gidoi didaktikoen itzulpenak HABEk jarriko ditu esleipendunaren eskura, eta honek SRT formatudun artxiboetan emango dizkio HABEri.

2.11. BIDEOAK SORTU ETA EKOIZTEKO BALDINTZAK

- 2.11.1. Bideoak proiektu honetarako berariaz sortuak izango dira, eta aurreko puntuetan zehaztutako eta adierazitakoak betez diseinatuko dira. 60 bideoz osatutako bilduma hau egungo ikus-entzunezkoen joera estetikoak aintzat hartuta sortuko da eta bildumak diseinu bateratua izango du.

Sare sozialetan argitaratuko diren pasartei dagokienez, testuinguru horri dagozkion komunikazio-ereduei jarraikiz sortuko dira.

- 2.11.2. Grabazio-uneetan gutxienez HABEko teknikari bat egongo da gidioen betetze-maila eta kalitatea bermatzeko.
- 2.11.3. Bideoen eduki eta aurkezpen-moduek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko dituzte. Ondorioz, ezin izango dituzte agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ideia, ikur edo elementuak.
- 2.11.4. Bideo guztietan hitzezko zein irudizko hizkuntza ez-sexista erabiliko da. Halaber, ez da sexua dela-eta eragindako bereizkeriarik egingo, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak dioena betez.
- 2.11.5. Proiektu honen izaera edo bere atalen bat bereziki aberastu eta azken produktuaren zati izango diren osagarriak –irudi, soinu, testu edo beste edozein multimedia-objektu (joko, animazio, infografia....)– beste egileren batenak edo esleipendunaren beraren beste produktu batetik eratorriak direnean, erabilera-baimen guztiak eskuratuak beharko ditu izan esleipendunak, betiere, agiri administratiboan zehaztutakoa eta egile-eskubideei buruz indarrean dagoen araudia betez.

- 2.11.6. HABEk grabazioan bertan eta aurreprodukzio- nahiz postprodukzio-fasean egingo ditu kontraste-lanak.

3.- AURREKONTUAREN DIRU-HORNIDURA

Egitasmo honek **72.677,28€**-ko aurrekontua du (BEZa barne)

Aurrekontuaren kalkulua	
Lan-kostua	58.725,00 €
Azpiegitura-gastuak	7.634,00 €
Industria-etekina	3.523,00 €
GUZTIRA (BEZ gabe)	69.882,00 €
BEZ (% 4)	2.795,28 €
Guztira (BEZ barne)	72.677,28 €

4.- EPEA ETA ZEREGINAK

Oinarri teknikoen agiri honetan zehaztutako ekoizpen-lanak kontratua esleitu eta **4 hilabeteko epean** egingo dira.

Zereginak	Egutegia
• 1-30 bideo-artxibo • SSZ-1-30 bideo-pasarte • 31-60 bideo-artxibo • SSZ-31-60 bideo-pasarte Azpitituluak bideo bakoitzarekin batera entregatuko dira.	• Lehen bi hilabeteko epean • Bigarren bi habeteko epean

5.- PROPOSAMEN TEKNIKOA

Lehiakideek, jarraian ageri diren eduki gramatikalak oinarri hartuta, bi lan hauek egingo dituzte:

- 1.- A1 mailako ereduzko **Geure burua aurkeztu AZALPEN-BIDEOA** azalpen-bideo bat aurkeztuko dute (mp4 formatuan)
- 2.- Bideoaren oinarri izango den **gidoi teknikoa** aurkeztuko dute (word edo pdf formatuan).

Bi lan hauek egiteko, jarraian ageri den **gidoi didaktikoan oinarritu behar da**. Hau da, HABEren eduki gramatikalaren gidoi didaktikoa izango da abiapuntua. Edonola ere, **lehiakideek moldatu, egokitu eta egoki ikusten duten moduan osatuko dute, baita aurkezlearen gidoia eta komunikazio-estiloa erabaki ere.**

Ikasleak **egoera-bideo hau** ikusi ondoren, ikusiko du **Geure burua aurkeztu**

AZALPEN-BIDEOA

GIDOI DIDAKTIKOA: Geure burua aurkeztu

Unea	Eduki didaktikoa
1.- Hasierako agurra	
2.- Bideoaren helburuaren berri eman	Gaur euskaraz agurtzen eta geure burua aurkeztzen ikasiko dugu.
3.- Edukiak aurkezteko egoerak (bi aurkeztuko dira) 1 Irakasleak bere burua aurkeztuko du. 2 Elkarriketa laburra (Olaia eta Pello egoera-bideoko bi pertsonaiak dira):	1 “Ni X (<i>irakaslearen izena</i>) naiz, Barakaldokoa, eta zuen irakaslea izango naiz”. 2 - “Egun on! Nire izena Olaia da eta Donostiarra naiz” - “Kaixo, Olaia! Ni Pello naiz, kazetaria, Iruñekoa” “Gu Olaia eta Pello gara”. “Eta zu, nor zara zu?”
4.- Azalpen nagusia (hizkuntzaren analisia)	Gure burua aurkezteko hauxe da esaldien egitura. Euskaraz, aditza bukaeran. Adi! Gogoan izan!

	IZENORDAINA + gure informazioa + ADITZA Gure informazioa: • Izena eta abizena • Lanbidea • Nongoa naiz • ... 1 Ni (irakaslearen izena) naiz, Barakaldokoa, eta zuen irakaslea izango naiz”. 2 - “Egun on! Nire izena Olaia da eta Donostiarra naiz” - “Kaixo, Olaia! Ni Pello naiz, kazetaria, Iruñekoa” “Gu Olaia eta Pello gara”. “Eta zu, nor zara zu?”
Adibide gehiago Ikasle gehiago irudikatuz, munduan barrena	“Ni Leire naiz, Bilbokoa.” “Gu Oiongoak gara. Egun on!” “Kaixo. Ni Madrilgoa naiz.” “Gu Eva eta Cristina gara. Argentinakoak. Eup!” “Ni Paolo, Erromakoa. “ Zuek denak euskara-ikasleak zarete.
Laburpena	<u>Izenordainak</u> Ni/Hi/Hura/Gu/Zu/Zuek/Haiek <u>Izenak</u> Lanbideak, pertsona- eta leku-izenak: Irakaslea/ikaslea/kazetaria/Olaia/Pello/Barakaldo/Donostia/Iruñea/ <u>Izan aditza</u> naiz/haiz/da/gara/zara/zarete/dira <u>Nor garen esateko:</u> Nire izena ____ da (Ni) ____ naiz Gu ____ gara Zuek ____ zarete <u>Agurrak</u> Kaixo, egun on, eup
Bukaerako agurra	

6.- PROPOSAMEN TEKNIKOAK BALIOZTATZEKO IRIZPIDEAK

18

10 punturen banaketa honela gauzatuko da. Plegu administratiboan ezarri denez, 50 punturen gainean egingo da lizitazioko balorazioa.

Ereduzko azalpen-bideoa eta gidoi teknikoa ebaluatzean, alderdi tekniko, adierazkor, estetiko, pedagogiko eta funtzional ugari hartuko dira kontuan, betiere ikus-entzunezko produktu didaktikoa dela kontuan hartuta. A1 mailako euskara-ikaslea (hartzailea) eta helburua (euskara ikastea) hartu dira kontuan adierazle hauek zehazteko.

EREDUZKO AZALPEN-BIDEOA			
Adierazleak	Kontuan hartuko da	Puntuen banaketa	Gutxienekoa
Eduki osagarriak (irudiak, argazkiak, grafismoak...): beren funtzioen betetze-maila	Ugaritasuna Aniztasuna Adierazkortasuna	3 puntu	2 puntu
Grabaziorako teknikak: aurkezpen-eredua hizkuntzaren ikaskuntzarako egokia da. Edukiari eta helburuari egokitzen zaizkio.	Erabilitako tekniken arteko oreka eta aniztasuna Teknologiaren balio erantsia ezagutzaren transmisioan	3 puntu	2 puntu
Aktoreak: interpretazioa eta lokuzioa egokia da.	Aurkezpenaren intentzio didaktikoa egokia den Hizketa-erritmo naturala darabilen Sinesgarritasuna eta hurbiltasuna Ahozkotasanaren ezaugarriak kontuan hartu diren Ahoskera garbia den Ez-hitzezko hizkuntzaren erabilera...	2 puntu	1,50 puntu

Egitura eta erritmoa: irudien sekuentziazioak erritmo egokia du eta edukien garapena egokia da.	Arintasuna, adibideak, arreta-uneak, etenak, ahozko eta idatzizkoaren arteko sinkronizazioa...	0,20 puntu	0,10 puntu
Soinua: soinuaren kalitatea egokia da eta soinu-osagaiak (musika, efektuak...) gidoiari egokitzen zaizkio.	Lagungarria den Ulermenean nola eragiten duen	0,20 puntu	0,10 puntu
Iraupena: helburua eta hartzailea kontuan hartuz, iraupen egokia du.	Idatzizko edo ahozko mezuen edukia motzegia ala luzeegia den	0,20 puntu	0,10 puntu
Azpitituluak	Zenbat hizkuntzatan eman diren (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa)	0,20 puntu	Gutxienekorik ez
Karatula, sintonia eta kredituak	Egokitasuna Estetika Adierazkortasuna	0,20 puntu	Gutxienekorik ez
		9 puntu	5,80 puntu
GIDOI TEKNIKO			
Adierazleak	Kontuan hartuko da	Puntuen banaketa	Gutxienekoa
HABEren gidoi didaktikoaren egokitzen maila	Ikus-entzunezko formatura ekartzeko egin den ahalegina	0,50 puntu	0,25 puntu
Eduki osagarrien zehaztasun-maila	Gidoi didaktikoan erabilitako ahozko nahiz idatzizko diskurtsoa ikus-entzunezko lengoaiara eramateko zein baliabide aukeratu diren	0,50 puntu	0,25 puntu
		Puntu 1	0,50 puntu

7.- ADIBIDE LAGUNGARRIAK

AZALPEN-BIDEOEN ADIBIDEAK

- [Talking Heads Video Demonstration - Video Production](#)
- [Tendencias elearning: El vídeo formativo](#)
- [NOOC "Colabora y organiza en digital"](#)
- [False friends | Mini English Lessons](#)
- [Science Glass at SDSU: Coral Algae Warzone by Milou](#)
- [Vídeo 1.1. Qué es el ABP y claves de un buen proyecto - Objetivos](#)
- [Presentación del MOOC "Gamificación en el aula"](#)

Sare sozialetako adibideak:

- https://www.instagram.com/reel/CjaINmSq_j3/?igshid=YmMyMTA2M2Y%3D
- <https://www.instagram.com/reel/CjuvafcgVnU/?igshid=YmMyMTA2M2Y%3D>
- <https://www.instagram.com/reel/ChE6JCIAtzb/?igshid=YmMyMTA2M2Y%3D>
- <https://www.instagram.com/reel/Cj7iOruIEM-/igshid=YmMyMTA2M2Y%3D>
- <https://www.instagram.com/reel/CkjuC0ND1Ub/?igshid=YmMyMTA2M2Y%3D>